



DONOSTIAK ZERBITZU BERRIEKIN EKIN DIO HONDARTZA DENBORALDIARI

Donostiako hondartzek ohiko zerbitzu eta ekipamenduekin ekin diote aurtengo denboraldiari. Aurtengo berritasunetako bat armairu txiki batzuk jarri izana dugu, eta zaindegi modura, ordulariak, mugikorrak, giltzak eta beste tresna txiki batzuk uzteko aukera ematen digute, itsasoan bainu bat hartzen dugun bitartean.

Miguel Angel Diezek, hondartzez arduratzen den zinegotziak, adierazi du “armairu horien funtzionamendua erraza dela: aldagela kolektiboen harrera mahaietan, eta aurrez 5 euroko bermea jarrita, eskumuturreko giltza bat eskuratuko dugu armairu horietako bat erabili ahal izateko. Eskumuturrekoa itzultzean, 5 euroko bermea itzuliko digute, eta beraz, doako zerbitzua izango da”.

Beste berritasun bat hiru hondartzetan zutoihal batzuk jartzea izango da, donostiarrei oroitarazteko eta bisitariei jakinarazteko nolako kalitatea duten gure hondartzek, hirurek ere harrotasunez erakutsiko baitituzte ISO 14001 eta EMAS kalitate ziurtagiriak.


“Donostiako hondartzek 2000. urteaz geroztik ISO 14001 ziurtagiria dute eta 2003az geroztik EMAS erregistroan inskribatuak daude. Bi ziurtagiri horiek bermatzen dute gure hondartzetan egiten diren kudeaketek ingurumen aldetik jokabide egokia dutela eta horien eragina izan litekeen txikiena dela, eta beraz, ingurumen legeria betetzen dela bermatzen dute”, adierazi du Diezek.

Bi kalitate ziurtagiri hauei esker, Donostiak urteak daramatza bandera urdinik eskatu gabe, beste horiek askoz ere garrantzitsuagoak eta zorrotzagoak direla uste dugulako.

Hain zuzen ere, 2016ko urte honetan, araudiari jarraiki, erabat berrikusten ari gara sistema osoa, eta horrexegatik, egiten ari garen ikuskaritza lanak guztiz osatuak dira. Horien emaitza zuzena baldin bada, Donostiak 13 urte beteko ditu EMAS erregistro europarraren barruan, gure hondartzei ingurumen bikaintasunaren mailarik gorena bermatuz.

Ikuskaritza horietan, zenbait xehetasun hartzen dira kontuan, kalitate ziurtagiriak erdiesteari begira:

- **Hondakinak:** 2015ean erretiratutako hondakin kopuru osoa, aurreko urtearekin alderatuta, nabarmen handitu ez den arren, gaikako bilketari dagokionez igoera bat ikusi ahal izan dugu, hondartzan jarritako ontzien ehunekoa bikoiztu egin dela kontuan izanik. Esan daiteke hondartzetan sortutako hondakinen % 52 zabortegeira ez joatea lortu dugula gaikako bilketari esker. Aurten hautsontzi-kukurutxak banatzea aurreikusitako dugu, hondakinek hondartzetan duten eragina gutxitzearen.



- **Ura:** 2015ean, uraren guztizko kontsumoak ere ez zuen igoera nabarmenik izan. Aurten, hondartzetan jarritako dutxa zutoinetako lau “alkatxofak” berreskuratu ditugu, eta era horretan, aurreko denboraldietan dutxetan izan ditugun ilarak eragozten ahalegindu gara. Horrez gain, murriztu egin da dutxetan sakatze bakoitzaren ur-denbora, jendeak amaitu eta alde egiten duenean ura alferrik gastatu ez dadin.

- **Energia:** Joan den urtean kontsumoa dezente igo zen, aldageletan gas naturalaren kontsumo handiagoa egin zelako.

Gainerakoan, denboraldi ofiziala bi zatitan banatu izan da betidanik:

Batetik, ekaineko lehen hamabostaldia eta iraileko azkenekoa: oinarrizko zerbitzuak bakarrik dabilta, hala nola dutxak, paperontziak, sorosleak, aldagelak, armairuak, tabernak...

Eta bestetik, ekainaren 15etik irailaren 15era, hondartzek beren zerbitzu guztiekin funtzionatzen dutela, eguzki oihalak, itzalkinak, aulkiak, etzaulkiak eta gabarroiak ere barne.

Kontxa hondartza: Eguzki oihalak: 440 (minusbaliatuentzat egokituak 8)
Denak esleitu dira

Ondarreta hondartza: Itzalkinak: 198 Denak esleitu dira
Eguzki oihalak: 424 350 esleitu dira (% 82,5)
Karpak: 98 73 esleitu dira (% 74,50)

Zurriola hondartza: Eguzki oihalak: 240 211 esleitu dira (% 88)

Salbamendua eta Sorospena

Ekainaren 1etik irailaren 30era da, 10:00etatik 20:00etara goi denboraldian, eta 10:30etik 19:30era ekainaren lehen hamabostaldian eta iraileko azkenekoan. Guztira, Gurutze Gorriko 24 sorosle arduratuko dira hondartzak zaintzeaz, eta horietatik 7 Kontxan egongo dira, 6 Ondarretan eta 11 Zurriolan.

Hondartza bakoitzean eta uhartean lehen larrialdietarako botika kutxa bat dago, desfibriladore eta abarrekin. Zurriola hondartzan Gurutze Gorriaren asistentzia etxola osagarri bat dago mendebaldean, hondartza horretako botika kutxa inguru horretatik urrun samar geratzen delako.

Gurutze Gorriak, eskatzen duten guztiei, haurrentzako identifikazio eskumuturreko batzuk banatuko dizkie, eta bertan, izenak eta harremanetarako telefonoa idatziko dira, galduz gero.

Zurriola hondartzan, halaber, pasealekuan Udaltzainen ibilgailu bat egongo da, salaketak zuzenean izapidetu ahal izan daitezten.

Komunak

Hiriko hondartzetan guztira 32 pixaleku daude, eta horietatik hiru mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat egokituak daude (hondartza bakoitzeko bat).

Hondartzako dutxak eta edateko uraren iturriak

Hiru hondartzetan 49 dutxa erabilgarri daude (19 Zurriolan, 16 Ondarretan eta 14 Kontxan). Arestian esan den moduan, aurten dutxa zutoinetan berreskuratu egin dira lau txorrota edo "alkatxofak"

Gainera, edateko 40 ur txorrota daude, kontsumorako eta oinak garbitzeko balio dutenak.

Gabarroiak

Goi denboraldiari begira jarriko dira. Kontxako eta Ondarretako hondartzetan bakarrik. 4 gabarroi txiki eta igerilekua duten 2 handi izango dira. Jauzi ohola eta txirrista dute. Balizetatik hurbil kokatuak daude, tarteko itsasaldian ur ertzetik 150 m-ra batez beste

HONDARTZEN GARBIKETA

Hondartzen garbiketa lanak egunero egiten dira, ardura handiz egin ere. Denboraldi ofizialak garbiketa lanak areagotzera behartzen gaitu, hiriko hondartzak egunero-egunero garbi egon daitezen.

Ekaineko lehen hamabostaldian eta iraileko azkenekoan 15 langile aritzen dira hondartzetan garbiketa lanak egiten. Goi denboraldian, hots, ekainaren 15etik irailaren 15era bitartean, langile talde hori 25 lagunek osatzen dute.

Baliabide mekanikoak: 3 traktore, 2 bahetzaile, atoian eramateko arrastelu bat, badia garbitzeko bi itsasontzi, gurdi-traktore bat eta ibilgailuak garraiatzeko kamioi bat.

ZURRIOLAN SURF EGITEA

Zurriola hondartzan, Kursaaletan atzean, 20.000 m³ hondar mugitu dira, zerbitzu eremuari berriro profila ematearren. Era berean, beste 20.000 m³ hondar birbanatu dira Sagues inguruan.

Bainu-hartzaileen eta surflarien artean uretan espazio bateraezintasunak sortzen direnez gero, bainu-hartzaileek bakarrik eta surflariak bakarrik erabiltzekoak diren eremu batzuk bereiziko dira Zurriola hondartzan, aurreko urteetan bezala. Surf ikastaroak eskaintzeko eremu bat ere finkatuko da. Ur bazterrean jarritako banderatzu batzuen bitartez adieraziko dituzte eremu horiek.